

Ekaitz Santazilia, filologoa

«Ez dugu Diogenes sindromea eduki behar euskararekin»

Filologo gazte eta praktikoa, irakaslegaien irakaslea, testu zaharren ikertzailea eta euskararen mitoen desmitifikatzailea.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Etorkizuneko maisu-maistren formakuntzan ari zara lanean. Zertan datza zure egitekoa Nafarroako Unibertsitate Publikoan?

Nire ikasleak Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasten ari dira. Euskaldunekin hizkuntza baliabide komunikatiboak hobetzen saiatzen gara, eta erdaldunei aldiz, euskara ematen diegu lehen mailan zerotik hasita, eta euskararen historiarekin lotutako gaiak ere bai. Askok lehen aldiz dute harremana euskararekin. Urte hauetan barneratzen dituzten euskararen inguruko ikusmoldeak oso garrantzitsuak izango dira haien ikasle izango direnentzat.

Ikasle batzuk kexu dira lehen urtean euskara ikastea derrigorrezkoa izan eta gero programatik desagertzen delako. Abandonatu egiten ditugu ikasleak. Hautazko gisa eskaini beharko geniekeela uste dut.

Bestalde, dena ongi bidean, datorren ikasturtetik aurrera NUPEK Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan eskaintzen duen Unibertsitate Masterrean euskarako lerroa zabalduko dugu

Garai batean kezka handia zegoen irakasle euskara mailarekin.

Duela ehun urteko kezka zen euskarak ez zuela balio etxerako baizik, eta orain kontrako joera sumatzen hasia naiz, gure ikasle askok, eskolan euskaldundu direnek bereziki, arazoa baitute etxeko eta kaleko euskararekin. Eredu euskalduneko ikasleak ere, Iruñera etortzen direnean erdalduntzen dira dezente.

Zer egin daiteke?

Oso ohituta daude gramatika ikasten eta alor komunikatiboa gehiago landu beharko lukete, baina unibertsitateak ez du horretarako aukera gehiegi ematen. Oso garbi hitz egiten diet nire esperientziak: euskara unibertsitatean garatu nuen, baina ez ikasgelan soilik. Txikitatik beti euskaraz ikasi dut, baina benetan euskaraz egiten karrerako parrandetan ikasi dut; lekeitiarrekin, Segurakoekin, baztandarrekin...

18-25 urte-tartea oso garai garrantzitsua da, euskara nerabearen hizkuntza izatetik helduarena izatera pasatzen delako. Bat-batean hizkuntzak beste espazio batzuk bete behar ditu eta hor dago

gakoa. Askotan ikusten da derrigorrezko ikasketak euskaraz egin dituen gazteak goi-mailako ikasketak erdaraz egin edo kanpora ikastera joan eta itzultzen direnerako erdaldunak direla.

Gazteen euskararen kalitateaz ere kezka badago. Zuk zein iritzi duzu?

Etxetik euskaldun den baten eta D erduan ari den neska-mutiko baten eus-

Ekaitz Santazilia Salvador

1987, Iruñea

Filologoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Filologia eta Hizkuntzen didaktika departamentuko irakaslea, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko zuzendari berria, Nafar Ateneoko euskara eleduna, Aziti Bihia filologo eta hizkuntzalari gazteen taldeko fundatzailea, Monumenta Linguae Vasconum taldeko kidea eta euskal testu zaharren maitale eta aztertzaile nekaezina.



kara ez dira berdinak, baina euskaldun berria ez da kriminalizatu behar. Bakoi-tzak abilezia batzuk garatu ditu. Kontua da oreka bilatzea. Askotan dena zaindu, dena gorde nahi izaten dugu, zertarako nahi dugun gehiegi pentsatu gabe. Ezin dugu mundua museo bilakatu. Ezin da dena salbatu. Ongi dago baserriko lanabesen izenak jasotzea, baina planteatu beharko genuke zenbateraino ikasi beharko lituzketen gure ikasleek. Neur-tu behar dugu zenbat indar eta sos jar-tzen dugun halako gauzetan, eta zein helbururekin. Ez dugu Diogenes sindro-mea eduki behar euskararekin.

Horren inguruan artikulu bat idatzi-nuen Juan Jose Zubiri filologoarekin, haur hizkerari buruz. Haur hizkera, helduek haurrekin duten mintzatzeko moldea, nahiko aberatsa da euskaraz eta ezau-garri bereziak ditu, baina galtzen ari da. Zertarako salbatu planteatu genuen, zein helbururekin. Atera genuen ondorioa da haur hizkera ez dela oztupoa hizkuntza ikasterakoan, eta aldiz, zenbait funtzio betetzen dituela. Hiriko familia euskal-dunberrietan balio dezakeela uste dugu, euskara eskolatik etxera ekartzeko eta gu-rasoek eskolan ikasitako euskara berres-kuratzeko, gainera oso balore emozional handiarekin. Oso material onak sortu dira, *Xaldun Kortin* adibidez, Nafarroan.

Zertarako sortu zenuten Aziti Bihia filo-logo taldea?

Euskararen historiaren inguruan iker-ketak egiten gabiltzan filologo eta hiz-kuntzalariek gutxi gara, baina EHUn Gasteizko fakultatearen inguruan belau-naldi gazte polita sortu zen orain urte batzuk, eta elkartzea hobe zela pentsatu genuen. Taldean aritzeak beste bide bat-zuk jorratzea ahalbidetzen du, elkarri laguntzea, denon ezagutza bateratzea, eta unibertsitateko eremuari loturik baina hortik kanpo proiektuak egiteko balio digu, baita elkarren arteko kontso-lamendurako ere. Unibertsitatean egi-ten den hizkuntzalaritza eta filologiaren oinarri eta metodologiak gizarteratzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

Euskararen inguruko mitoak desmitifika-tzen ibiltzen zara askotan. Zer mito dira?

Erromantizismoak hedatutako ideia da euskara hizkuntza bakartua eta arraroa dela, eta hori dena bere testuinguru lite-rario, politiko eta sozialean jartzen saiatu izan naiz, hainbat ikastaro eta hitzaldi-

tan. Historiak erakusten du euskaldunak beti bizi izan garela beste kulturekin ha-rremanetan. Adibide bat jartzearen, jen-deak Gartxoten kondairaren irudia du gogoan: euskaldunak zoko batean isola-tuta mendi artean. Horregatik gustatzen zait zaraitzuar haren irudi literarioaren aldamenen Ezkarozeke elizako erretau-la barroko ederra edo Muskildako dan-tzak jartzea. Han euskaldunak izan dira atzo arte eta, hala ere, ez dira bizi izan garaiko modei bizkar emanda, kontrakoa baizik. Halako herriak txiki eta isolatu bi-lakatu omen dira azken mende hauetan, baina harreman eta jende mugimendu handiak izan dituzte betidanik, eta orain-dik ere Nafarroako gizarte egitura badeute zeresanik.

Isolamendu genetikoaz ere aritu izan zara.

Euskarak ez duela ahaidetik esaten da, baina horrek esan nahi duen gauza bakarra da metodologia konparatzai-le zientifiko eta zorrotz bat aplikatuz, dugun datu kalitate eta kantitateare-kin, momentuz ezin izan dugula euskara beste hizkuntza batekin lotu. Horrek ez du esan nahi inoiz ez duenik ahai-derik izan, unean metodo zientifikoa aplikatuz ahaideak aurkitzeko aski datu fidagarri ez dugula baizik. Gaur egun ehundik gora hizkuntza isolatu daude munduan, beraz, ez da gauza arraroa.

Euskarak ezaugarri arraroak dituela ere maiz entzuten da, baina euskarak di-tuen gauza "arraroak" beste hizkuntzetan ere aurki daitezke. Ergatiboa, adibidez, oso arrunta da munduan, Australiako hizkuntzetan adibidez. Aditza esaldiaren bukaera jartzea ere oso gauza normala da munduan; normalena agian. Zentzu horretan, munduko hizkuntza gehienak dira gaztelania bezala (aditza erdian) edo euskara bezala (aditza bukaeran). Kontua da oso ikuspegi europazentrista izan du-gula orain arte, besteak beste, munduko hizkuntzen gainean datu eta deskribapen gutxi izan dugulako. Euskara Europako hizkuntzekin konparatu beharrean mun-du osokoekin konparatzen badugu, ohar-tuko gara oso gauza gutxi dituela bereak baizik ez direnak.

Adibidez?

Tipologikoki berezi samarra da txistu-karien sistema aberatsa. Sei ditugu gaur egun, nahiz eta ez den beti horrela izan: x, s, z, tx, tz, ts.



Eta Europako hizkuntza zaharrena da?

Hizkuntzen jatorria, edozein hizkuntza-rena, denboran galtzen da, hizkuntza etengabe aldatzen den *continuum* bat delako, eta ezin dugulako esan noiz as-matu den hizkuntza hori; beti dator au-rretik zegoen beste zerbaitetik, aldatuz eta aldatuz gaur egungo egoerara iritsi arte. Nik ikasleei galdetzen diet ea zein hizkuntza den zaharragoa, euskara edo gaztelania, eta haiek normalean eus-kara dela erantzuten dute, gaztelania latinetik datorrelako, baina bata bestea bezain zaharra da. Gertatzen dena da iruzur terminologiko bat dagoela: tran-pa da duela bostehun, bi mila edo bost mila urte egiten zenari *euskara* deitzea,



beti hizkuntza berbera izan balitz bezala, eta gaztelaniari, aldiz, garaian garai *erromantzea*, *latin indoeuropea* edo dena delakoa esatea.

Aziti Bihiakoak zarete XVII. mendeko Esteve Materra frantziskotarraren doktrinaren ale bat (eta momentuz bakarra) Danimarkan aurkitu zenutenak duela bi urte. Zuen lan ezagunena, doike.

Oso testu interesgarria da, lapurtera klasikoan argitaratutako lehen testua delako oraingoz, 1617koa. Galdua zegoen lehen edizioa; bigarrenetik, 1623kotik, ale bakarra gordetzen da Oxforden eta Euskal Herrian ikerketarako erabiltzen ziren kopiak ez ziren oso kalitate han-

dikoak; filologiaren arreta merezi zuen. Boom bat izan zen. Komunikabideetan bi hilabetez etengabe agertu ondoren, zapore gazi-gozoarekin gelditu ginen. Jendearen arreta piztu zen eta alde horretatik gu kontent, baina ikusi genuen batzuetan jendearen eta komunikabideen interesa eta gurea ez zetozela bat. Jendeak aurkikuntzari berari erreparatzen zion, ez testuari, eta zorteari egotzen zion aurkikuntza, baina hor badago azpiegitura eta inbertsio bat unibertsitatearen inguruan; euskal filologiaren garapena izugarria izan da azken hamarkadetan, eta ikertzaile prestatuak ari dira horretan lanean. Badakite zer bilatzen ari diren, nola bilatu, eta tes-

tuari daukan balio filologikoa emateko ezagutza eta oinarria badute.

Zein izan da zuretzat aztertu duzun testu zahar garrantzitsuenak?

Ez da erantzun erraza. Bat aipatu behar banu, zuzenean nik landu ez dudana bat aipatuko nuke, hain zuzen: Monumenta Linguae Vasconum ikerketa taldeko lan-kideak sakon aztertzen ari diren Joan Perez Lazarragakoren eskuizkribua, arrazoi askorengatik. Arabako testua da, eta testu zahar gutxi ditugu horkoak. Gaiaren aldetik, ez da testu erlijiosoa, nerabe humanista batek idatzi edo kopiatutako poesia baizik. Erabiltzen duen euskararen ezaugarri interesgarri uga-

ri aurki daitezke, batzuk ezezagunak ordura arte, eta beste batzuk eremu edo garai horretan leku-kotu gabeak. Gainera, euskarazko poesia zerabilen noblea zen neurrian, ezezagun samarra zitzaigun egoera soziolinguistikoa agertu digu.

Eta testu zaharren balio ekonomikoa nola zehazten da?

Horretan ez gara sartzen. Guk aztertzen dugu testua eta bere testuinguruan kokatzen dugu, baina balio ekonomikoa merkatuaren irizpideen arabera jartzen da. 1995ean, adibidez, Nafarroako Aurrezki Kutxak 1571ko Leizarragaren *Testamentu Berriaren* ale bat erosi zuen 30.600.000 pezetetan, kasik 184.000 euroan, eta 2008an Euskaltzaindiak beste bat erosi zuen 24.000 euroan. Zer dela eta alde hori? Horren zergatiak filologiaren gainetik daude.

Orain esku artean zer duzu?

Lana ez da sekula bukatzen. Duela gutxi Erronkarin doktrina bat agertu da eskuz idatzia, Lizarraga Elkanokoarekin lotua, eta azertu nahi nuke. Gainera, Paristik etorri berri naiz, XVIII. mendean Mauloko Belako zaldunak frantsesez eskuizkribatutako nafarren eta euskaldunen historia bat nire eskuetara ailegatu denez, Frantziako Liburutegi Nazionalen autore horren lanak ikusi nahi nituelako. Altxor handia dira zaldunaren testuak historiarako, etnografiarako, eta niri dagokidanean, euskararako, horri ere eskaintzen baitio pasarterik. Ziriako Garralda otsagabiarrak 1895. urtean zaraitzueraz idatzitako doktrina txiki bat agertu da berriki, eta beste batzuekin batera hori aztertzen ari gara.

Fontes Linguae Vasconum aldizkariko zuzendaritza hartu berri duzu. Zeintzuk dira erronka nagusiak?

Fontes-en erronka bikoitza da. Batetik, sortu zenetik duen ildoari atxikita, euskarazko testu zaharren kabi izan nahi



Azken hitza: Euskalkiak

“Euskalkiekiko izugarritzko begirunea izan dugu eta altxorak dira, baina ulertu behar dugu hiltunen arteko harremana galtzen denean sortzen direla, eta hizkuntza berez batzen dela hiltunen elkartzean. Euskara bereziki azken 200 urtetan dialektalizatu da. Euskara, hizkuntza guztiak bezala, eta euskalkiak bezala, aldatzen ari dira etengabe: gauzak sortzen ditu, uzten, edo beste leku batetik hartzen. Adibidez, Erronkaribarreko eta Zaraitzuko erakuslearen *k-* (*kau(r)*, *kori*, *kura*) forma, kontu berri samarra dela susmoa hartzen hasiak gara. XVI. mendeko adibide apurretan ez da horren arrastorik agertzen, esate baterako. Horregatik ez naiz gehiegi kezkatzen hizkuntza aldatzeaz. *Ondo* entzuten bada Iruñeko gazteen artean, eta ez *ongi*, aldaketa onartu behar dugu. Behintzat euskaraz ari dira”.

du. Bestetik, euskal hizkuntzalaritza unibertsitateko diziplina den neurrian, gure aldizkaria nazioarteko aldizkarietara eta haieten publikatzera derrigortuta dauden ikertzaileei oraingo unibertsitate sistemak ezartzen dizkien betebeharrak zorrotzetara doitu behar dugu, baldin eta ikertzaileak gure aldizkariara erakarriri nahi baditugu, eta hori ez da erraza euskalaritza bezalako arlo txiki batean. Baina saiatu behar.

Euskargazki bloga zer da?

Turismo filologikoa egiten dut, nahiko frikia naiz horrekin eta euskararen historiarekin zerikusia duten leku eta gauzen argazkiak hartzen ditut han eta hemen. Irudi horiek guztiak jendearekin partekatu nahi nituen eta blogean jartzen ditut. Hor daude, esaterako, Iturmendiko XVIII. mendeko gurutze-bide bat euskarazko testuak dituen; Bonaparte printzearen laguntzaile izan zen Duvoisin kapitainaren hilobia; edo Bonaparte printzearena bera. Lekuak mapan kokatzen ditut, jendeak nahi badu erraz aurki ditzan eta argazkiak edozeinentzako eskuragarri daude. ■